

AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, KIROLENE KIROL-IRAKASKUNTZEN IKASTETXE PUBLIKOA SORTU ETA MARTXAN JARTZEN DUEN 535/2009 DEKRETUA, URRIAREN 6KOA, INDARGABETZEN DUENA, ETA IKASTETXE PUBLIKO HAREN HEZKUNTZA-ESKAINZA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUENA.

Hezkuntza Sailak KIROLENE Kirol Irakaskuntzen Zentro Publikoa sortu eta martxan jartzen duen eta haren hezkuntza-eskaintza eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 6ko 535/2009 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektu bat egiten hasteko asmoa du.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, arau-proiektua egin baino lehen, kontsulta egiteko epea irekiko du.

Urriaren 6ko 535/2009 Dekretuaren bidez, Kirolene Kirol Irakaskuntzen Zentro Publikoa sortu eta abian jarri zen. Ikastetxe hori da Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko kirol-irakaskuntzak eskaintzen dituen sare publikoko ikastetxe bakarra. Hala ere, dekretu hori argitaratu zenetik, eta 1363/2007 Errege Dekretua garatzeko, kirol-modalitate eta -espezialitate berriak sartu dira indarrean dagoen hezkuntza-sisteman, eta beste batzuk ere sartuko direla espero daiteke. Gainera, eraldaketa digitala paradigmaren aldaketa bat gertatzen ari da gizartean, eta nola ez, hezkuntza-sistemaren modernizazioan eta digitalizazioan eta, ondorioz, kirol-irakaskuntzetan.

## 1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak:

CPED KIROLENERi honako alderdi hauek bilduko dituen esparru juridikoa ematea:

### a) Eskumenak:

- Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak araututako araubide bereziko kirol-irakaskuntzak ematea.
- Kirol teknikarien titulazioak lortzera bideratutakoak araubide bereziko irakaskuntza gisa eratzten dituen abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren ondoriozko araubide bereziko kirol-irakaskuntzak emateko, tituluen eta horiei dagozkien gutxieneko irakaskuntzen jarraibide orokorrak onartzen dira, indarrean daudenak, bai eta irakaskuntza horien bloke komuna ere, titulu eta irakaskuntza berriak sortzen diren arte, hor zehazten diren modalitate eta espezialitateetan, 2007ko urriaren 3ko Errege Dekretuaren arabera.
- Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aipatzen diren kirol-prestakuntzako jardueren bloke komuna ematea, otsailaren 5eko ECD/158/2014 Aginduaren bidez garatua (aldi iragankor deituriko aldiko prestakuntzak).
- Abenduaren 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak araututako kirol-modalitateetako espezialitateetan eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak araututako kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren titulazioak lortzeko irakaskuntzetarako sarbide-probak antolatzea, ebaluatzea eta ziurtatzea.
- Arau bidez zehazten diren kirol-irakaskuntzen eta kirolaren irakaskuntza aztertzea, dokumentatzea eta zabaltzea, ikasketa horiek praktikoki aplikatzeko.
- Atxikipena egiteko baimena duten ikastetxe pribatuen ebaluazio-aktak berrikusi, erregistratu eta artxibatzea.





b) Eskaintza mota eta irakasteko modalitateak:

Ikasleei ikasketa horiek beste kirol, lan edo bestelako jarduera batzuekin bateragarri egiteko aukera ematearren, irakaskuntzen eskaintza honako hau izan daiteke:

- Osoa edo partziala, blokeka edo moduluka.
- Araubide presentzian edo urrutikoan egina. Irakaskuntza erregimen erdipresentzian edo urrutitik emateko, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira lehenetsuz, hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren titularraren aginduaren arabera, kirol-espezialitate edo -modalitate bakoitzari dagozkion tituluak eta gutxienezko irakaskuntzak ezartzen dituzten errege-dekretuetan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- Bloke espezifikoko eta bloke komuneko moduluen ezohiko denbora-banaketaren bidez, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako titularrak onartu ondoren.
- Eskaintza bereziak talde espezifikoentzat, hezkuntzaren arloan eskumena duen saileko titularraren aginduz xedatzen denarekin bat etorritik.

c) Ikastetxean emandako erdi-mailako kirol-irakaskuntzak eta goi-mailako irakaskuntzak gainditzea ekarriko duten tituluak.

d) Ikastetxearen betebeharrak.

e) CPED KIROLENEko lanpostuen zerrenda.

f) Ikastetxeko zuzendaria izendatzeko prozedura.

g) Instalazioak:

Kirol-diziplina bakoitza praktikatzeko, oso espezializatuta dagoen eta ezaugarri tekniko jakin batzuk dituen espazio propio bat behar denez, bere hezkuntza-eskaintzaren eskakizunei aurre egin ahal izateko, KIROLENE Kirol Irakaskuntzen Zentro Publikoari irakaskuntza horiek eskola-erabilera eskusibokoak ez diren eraikin eta instalazioetan kokatzeko aukera eman behar zaio, instalazio publikoak erabili behar dira, eta bloke espezifikoko prestakuntzaren zati bat egin behar da, prestakuntza praktikoko modulua barne, Euskal Autonomia Erkidegoko ezohiko bloke praktikoaren eremutik kanpo.

h) Araubide bereziko kirol-irakaskuntzei dagozkien prezio publikoen araubidea.

## **2.- Proiektatutako erregulazioaren beharra eta indarrean dagoen araudia.**

Proposatzen den erregelamendu-arauak arau-aldaketak egitea du helburu, Kirolene Kirol Irakaskuntzen Zentro Publikoaren funtzionamendu egokia bermatuko duen esparru juridikoa osatzeko.

Kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak lortzeko irakaskuntzen antolamendua urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan ezartzen da, eta hezkuntza-administrazio eskudunari dagokio, 24.2 artikulua arabera, eskaintza antolatze beharrezko neurriak ezartzea (osoa, partziala, erdi-presentziala eta urrutikoa). Halaber, otsailaren 5eko 158/2014 Aginduaren 25. artikulua arabera, hezkuntza-administrazio eskudunak emango du kirol-prestakuntzako jardueren bloke komunak (aldi iragankorra), urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorraren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Sailari dagokio, beste eginkizun eta jardun-arlo batzuen artean, Autonomia Estatututik ondorioztatzen diren ahalmenak araubide



orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagokienez, eta proiektatutako proiektuaren berezko gaia eskumen-eremu horretan kokatzen da.

Aurrekoaren ildotik, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari dagokienez, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 13. artikularekin bat etorriz, Saileko sailburuordetzei esleitutako eginkizun orokorrez gain, honako hauek dagozkio Hezkuntza Sailburuordetzari:

*” h) Ikastetxe eta unitate publikoak sortzea, eraldatzea eta kentzea proposatzea, Hezkuntza Sailburuordetzaren eskumenen esparruan, bai eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe eta unitate publikoentzako baimenak ematea, aldatzea eta azkentzea ere.”*

Gainera, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 16. artikulua honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari:

*“a) Ikastetxe publikoen sarea antolatzea eta planifikatzea, eta ikasleen prestakuntza-ibilbideak diseinatzea, irakaskuntza-maila eta -etapa guztietako ikastetxeen arteko atxikipenen bidez.*

*b) Ikasturte bakoitzean ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuaren hezkuntza-eskaintza planifikatzea, eta horietako bakoitzak etapa edo hezkuntza-maila bakoitzeko ikasturte eta modalitate bakoitzean onar dezakeen gehieneko ikasle eta talde kopurua zehaztea.”*

Beraz, Hezkuntza Sailari dagokio, bere eskumenak baliatuz, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen eskaintza publikoa arautzea, bai eta EAEko kirol-prestakuntzako jardueren bloke erkidea arautzea ere (trantsizio-aldia).

### **3.- Arauaren helburuak**

Proiektatutako dekretua arau-tresna bat izango da, CPED KIROLENERen funtzionamendua arautuko duen esparru juridikoa eguneratzeko beharrari erantzuteko.

### **4.- Beste aukera arautzaile eta ez-arautzaile batzuk.**

Kontuan hartuta dekretu-proiektuaren helburu nagusia dela KIROLENERen funtzionamendua arautuko duen arau-esparru bat ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko kirol-irakaskuntzak ematen dituen sare publikoko ikastetxe bakarra baita, bi aukera daude:

a) Legegintza-ekimenik ez egitea, eta horrek CPED KIROLENEK emandako hezkuntza-eskaintza eguneratu beharra ekarriko luke, dagokion ordezkorearen bidez.

b) Arau-esparrua eguneratzea, CPED KIROLENERi segurtasun juridiko handiagoa emanez.

Ez da jasotzen legegintza-ekimenari ez ekiteko aukera; izan ere, aztertzen ari garen arloan Hezkuntza Sailari hezkuntza-arloko eskumenak ematen dizkion ahalmenak ez baliatzea ekarriko luke, eta, horrela, berezko arau-esparrua hobetzeko aukera ez baliatzea.

Beraz, dekretu-proiektu berri bat izapidetzen hastea erabaki da, uste baita proiektatutako legegintza-ekimena dela egokia arau-esparru propioa osatzeko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie, baita etorkizuneko arauketa horrek eragin diezaiekeen antolakunde, entitate edo elkarteei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren webgunean argitaratuko da.



- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da eraginpeko erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen II. kapituluaren lehenengo atalak arautzen duen prestaketa-fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitutako eskumenen indarrez, honako hau

### **XEDATZEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko kirol-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedurari buruzko xedapen orokor baten proiektua jendaurrean jartzea, egin aurretik.

**Bigarrena.-** Arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek, hala irizten badiote, hamar egun balioduneko epea izango dute Agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

Jokin Bildarratz Sorron  
HEZKUNTZAKO SAILBURUA